

# Bizitegi

Por una sociedad sin exclusiones  
Bazterturik gabeko gizarterantz






## EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Ematen diogun izena ematen diogula ere, emakumeek gizonengandik jasotzen duten indarkeriaz ari gara, EMAKUME izate soilagatik jasotzen dutena, hain zuzen.




## GENERO INDARKERIAREN PIRAMIDEA





## Zer dira TRATU TXARRAK?

- Zaplaztekoak, bultzadak, haginkadak, zauriak, erredurak, hezurak haustea, kolpeak... **TRATU TXAR FISIKOA.**
- Entzungor egitea, balioa kentzea, beldurtzea, iraintzea, bere buruaz beste egitearekin mehatxatzea, haurrak eramatearekin mehatxatzea... **TRATU TXAR PSIKOLOGIKOA.**
- Sexu-abusuak, bortxaketak, nahi ez diren sexu-proposamenak, material pornografikoa ikustera behartzea, exhibizionismoa, GIBa edukita harreman sexualak babesik gabe izatea... **TRATU TXAR SEXUALA.**
- Dirua kontrolatzea, lan egiten ez uztea, dirua eskaraztea, aurrekontua mugatzea, pentsiorik ez ematea, gastuen justifikazioa eskatzea... **TRATU TXAR EKONOMIKOA.**
- Bestearen bizitzaren gehiegizko kontrola, mugimendu eta ekintza guztiak zelatatzea, bere elkarriketak entzutea, lagunak egiten ez uztea, senideekiko harremanak mugatzea... **TRATU TXAR SOZIALA.**






## KAUSAK



## INDARKERIAREN ZIKLOA





## Mikro zeeeeeeeeer...? MIKROMATXISMOAK!



Emakumeenganako indarkeriaren ezaugarriak dira baina hain normalizatuta daudenez, ez dira antzematen. Bitxia da konturatzea hain xehetasun txikien atzean patriarkatuaren itzala dagoela.



## TRATU TXARRAK EMATEN DITUZTEN GIZONAK

Ez dago tratu txarren emailearen profil jakin bat, ezta erlazionatutako patologiarik ere. Tratu txarrek erlazio zuzena dute maskulinitasun hegemonikoaren adierazpenarekin eta boterea mantentzeko estrategiarekin. Hori argi izan behar dugu.

Tratu txarren emaileak hainbat estrategia erabiltzen ditu biktima menderatuta edukitzeko helburuarekin; beraz, tratu txarrak nahita ematen ditu.

Deskalkifikazioak edo mehatxuak indarkeria fisiko izatera hel daitezke. Tratu txarren emaileak fisikoki erasotzen duenean, ez da “kontrola galdu duela”. Egoera menderatuta edukitzeko beste estrategia bat erabiltzen hasten da, beste barik.

| KONTROL ESTRATEGIAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | ONDORIO EDO KALTE<br>PSIKOLOGIKOAK                                                                                                                                                                                                                                     |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| DEGRADAZIOA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| Emakumea gutxiestea<br>Iraintzea<br>Egin edo esaten duenaz barre egitea<br>Bere itxurari buruzko komentario desatseginak egitea<br>Bere arrakasta eta lorpenak zapuztea<br>...                                                                                                                                                                                                    | Autoestimua suntsitzea:<br>Bizimoduari aurre egiteko ezintasuna.<br>Tratu txarren emailearekiko mendekotasuna.<br>Bere burua ez onartzea.<br>Tratu txar horiek merezi dituela pentsatzea.<br><br>Indarkeria egoerak sortutako desoreka emozionala.                     |
| DEFENTSA ESTRATEGIAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| Ekintzei garrantzia edo larritasuna kentzea.<br>Egindakoa zuzena zela argudiatzea.<br>Motibazio, jarrera eta ekintzak koherentziaz azaltzea.<br>Bere indarkeria kanpoko zirkunstantziekin lotzea.<br>Gertatutakoa gogoratzen ez duela esatea.<br>Xantaia emozionala.<br>...                                                                                                       | Emakumea jasaten ari den indarkeriaren errudun sentitzen da.<br><br>Tratu txarren emailearekiko pertzepzioan aldaketak: Errealitatearen pertzepzio distorsionatua.<br><br>Tratu txarren emailea idealizatzea.<br><br>Tratu txarren emailea sufriarazteko kezka izatea. |
| ERREALITATE SUBJETIBOAREN DISTORTSIOA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                                                                                                                                                                                                                        |
| Emakumeak esandakoari sinesgarritasuna kentzea.<br>Sistematikoki argudio kontraesankorrak erabiltzea.<br>Adierazpen nahasgarriak egitea (“maltzurak”).<br>Garrantzirik gabeko aspektuak funtsezko arrazoi bihurtzea.<br>Elkarriketak manipulatzeko.<br>Opariak egin edo sorpresak ematea, gero kentzeko.<br>Pribatutasunean daukanaren kontrako itxura ematea jendaurrean.<br>... | Munduaren baliotasuna zalantzan jartzea.<br>Nahasmendu eta errealitate ezaren sentsazioa.<br>Etengabeko zalantza.<br>Desoreka psikologikoa.<br>Amnesia.<br>Tarteka disoziazio eta despersonalizazio momentuak izatea.<br>Gizartearen aurreko sinesgarritasun eza.      |

| KONTROL ESTRATEGIAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              | ONDORIO EDO KALTE PSIKOLOGIKOAK                                                                                                                                                                                                                                                                          |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>ERANTZUKIZUNEN GAIKARA</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <p>Etzeko jaun eta jabe balitz bezala jardutea.</p> <p>Emakumea beti bere esanetara egon beharko balitz bezala tratatzea.</p> <p>Atsedan edo aisialdirako tarte bat sortzea emakumearen gainkargaren truke.</p> <p>Bere pentsamendu, nahi edo beharrianak asmatu behar dituela esatea.</p> <p>Etzeko lanetan eta haurren zainketan ez parte hartzea.</p> <p>Seme-alabekiko jeloskor eta lehiakor azaltzea.</p> <p>....</p>                                                                                                                                                                                                                                       | <p>Erlazioan amaren rola hartzea.</p> <p>Bizi-garapenerako lekuri uzten ez duen gehiegizko esfortzua: Pribatutasunik eza.</p> <p>Kaltetutako bizi-proiektua.</p>                                                                                                                                         |
| <b>PRIBAZIOA</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <p>Familiaren beharrianetarako nahikoak ez diren baliabideak ematea (sarritan gaitzespenekin).</p> <p>Seme-alaben mantenua ez ordaintzea.</p> <p>Nora joan daitekeen eta nora ez erabakitzea.</p> <p>Senideekiko harremanak eta harreman sozialak debekatzea.</p> <p>Diru-sarrereri edo egoera ekonomikoari buruzko informazioa ezkutatzea.</p> <p>Ondasun partekatutak erabiltzen ez uztea (bankuko kontuak, kreditu txartelak...).</p> <p>...</p>                                                                                                                                                                                                              | <p>Tratu txarren emalearengandik kanpoko erreferenteekiko urruntzea. Etorkizunarekiko segurtasunik eza. Bizi-zirkunstantziak aldatzeko ezintasuna.</p> <p>Laguntza bilatzeko zailtasunak.</p> <p>Nekatu eta ahuldu egiten duen tentsio etengabea.</p>                                                    |
| <b>INTIMIDAZIOA</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <p>Mehatxatzea (etxetik bidaltzearekin, ondarea suntsitzearekin, seme-alabak kentzearekin, tratu txarrekin, heriotzarekin, bahiketarekin, bere buruaz beste egitearekin...).</p> <p>Fisikoki erasotzea: Bultzatu, astindu, zaplaztekoak eman, jarraitu, objektuekin kolpatu, ostikoak eman, txistua bota, atximurka egin, iletik tira egin, haginka egin, lepotik heldu, erre, abortuak eragin...</p> <p>Sexu-erasoak/bortxaketak.</p> <p>Keinu, begirada, postura edo ahots-tonu mehatxagarriak erabiltzea.</p> <p>Telefonoz jazartzea, atzetik jarraitzea, zelatatzea...</p> <p>Modu arriskutsuan gidatzea, bere segurtasuna arriskuan jarritz.</p> <p>...</p> | <p>Aurreikusi ezin diren eraso kontrolaezinen aurrean beti erne egotea.</p> <p>Estresaren erantzun fisiologikoaren III. ardatzaren hiperaktibazioa (endokrinoa) (asaldura psikofisiologikoak).</p> <p>Harrapatuta eta paralizatuta egotea (ihes egiteko aukerarik gabe).</p> <p>Antsietate-asalduak.</p> |
| <b>GAUZA BAT BALITZ BEZALA TRATATZEA</b>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <p>Ikusi eta entzungo ez balu bezala tratatzea.</p> <p>Erabakiak bere kabuz hartzea, bere iritzia kontuan izan gabe.</p> <p>Oinarritzko beharrianak ukatzea (janaria, higieena, atsedena, arreta medikoa...).</p> <p>Sexu-harremanak inposatzea.</p> <p>Desio ez dituen sexu-praktiketara behartzea (desatseginak, mingarriak...).</p> <p>Nola jantzi, orraztu edo makillatu behar duen agintzea.</p> <p>...</p>                                                                                                                                                                                                                                                 | <p>Nortasun pertsonalaren haustura ("nia" isilaraztea).</p> <p>Autonomia, indibidualtasun eta askatasun pertsonala ukatzea.</p> <p>Hazkunde eta garapen pertsonala oztopatzea: Duintasun hautsia.</p>                                                                                                    |





## GIZONENTZAKO ONDORIO NEGATIBOAK

- Bikotearekin intimitate harreman atsegingarria bizitzeko ezintasuna.
- Emaztea eta seme-alabak galtzeko arriskua.
- Atxilotu eta kondenatua izateko arriskua.
- Isolamendua eta gizartearen aitortzea galtzea.
- Porrot sentimenduak.
- Frustrazioa eta sumindura.
- Familiak eta gizarteak baztertzea.
- Laguntza eskatzeko zailtasunak.
- Mendekotasuna.
- Ziurgabetasun sentimenduak.



## ZER LANDU TRATU TXARRAK EMATEN DITUZTEN GIZONEKIN

MAKULINOTASUN BERRIAK (GIZON ZAINZAILAK, BAKETSUAK, SENTIBERAK...)

**Berehalako neurriak hartzea (hala badagokio) eta konponbideak bilatzea.**

**Adopzio premiazko neurrietan (hala badagokio) eta erantzukizun alternatibo desberdinen bilakaera.**

**Erlaxazio eta arnasketa entrenamendua egitea.**

**Arazoak konpontzeko trebetasunak, gatazkak konpontzeko indarkeria erabiltzea zilegi egiten duten diskurtsoak ezereztuz eta elkarrizketa eta negoziazioaren alde eginez.**

**Gizonen isolamendua lantzea emozioen eremuan (ondorioz, pertsona libre eta autonomoagoak).**

**Jarduera atsegingarriak berreskuratzeko laguntza.**

**Lana, familia eta bizitza pertsonalaren arteko kontziliazioan inplikatzeko (aitatasun-baimenak, lanaldi murrizketak, eszedentziak).**

**Saihesteko jarrerak alde batera utzi eta kezkei aurre egitea adierazpen teknika edota distrakzio kognitiboaren bidez, hurrenez hurren.**





## TRATU TXARRAK JASO DITUZTEN EMAKUMEAK:

### Biziraun dutenen eskubideak

- Informazioa eta aholkua jasotzeko **eskubidea**.
- Berak eta bere seme-alabek gizarte-laguntza jasotzeko **eskubidea** arreta-, larrialdi-, babes- eta harrera-zerbitzuen bidez.
- Berehalako arreta juridikoa eta doakoa jasotzeko **eskubidea**.
- Laguntza ekonomikoak jasotzeko **eskubidea**.
- Norbere konturako langileentzako (lanaldi-murrizketa, lantoki aldaketa, laneko harremana etetea) eta autonomoentzako lan-**eskubideak** (kotizazio-salbuespena lagatzeagatik).
- Salatu eta babesa eskatzeko **eskubidea**.
- Biktimaren intimitatea babesteko **eskubidea**.
- Eragindako kaltearen konponketa eta kalte-ordainak jasotzeko **eskubidea**.



## ZER LANDU TRATU TXARRAKO JASO DITUZTEN

### EMAKUMEEKIN

- Sistema patriarkalak ezarritako estereotipo eta genero rola ikusarazi eta zalantzan jartzea.
- Etxeko lanen banaketa aztertu eta zalantzan jartzea.
- Subjektuaren kategoria ezagutzera eman eta sistema patriarkalaren objektua atzean uztea.
- Autoestimua eta oinarritzko gaitasun sozialak sustatzea. Norbere burua zaintzea.
- Genero-indarkeriaren funtsak ezagutu eta arrisku-egoerak identifikatzea.

**Boterea ematea genero-indarkeria egoerak prebenitu eta animatzeko.**

- Elkarrenganako konfiantzan eta errespetuan oinarritutako bikote-harreman osasuntsu eta parekideak lantzea.
- Beren garapen sexuala, genero-nortasuna eta sexu-orientazioa ezagutzea.
- Beren autonomia sustatzea garapen psikosoziala aberasten duten eta gizarteratze eta laneratzea errazten duten mekanismoen bidez.
- Inguruko bizitza sozial, ekonomiko, politiko eta heziketa arlokoan parte hartzea bultzatzea.
- Gaitasun sozialak eta lan arlokoak hobetzea.



## NOLA ANTZEMAN EMAKUME BATEK TRATU TXARRAK JASOTZEN ARI DELA

*pista batzuk*



Ginekologia eta obstetrizia arazoak ditu?

Insomnioa, depresioa, antsietatea, autoestimu baxua, bere buruaz beste egiteko saiakerak?

Zorabioak, zefaleak, min kronikoak?

Isolatuta dago eta senarrak kontrolatzen du?

Beldurrez dagoela dirudi, aitzakiak jartzen ditu, ez du bere burua egoki zaintzen eta errudun sentitzen dela ematen du?



## ZER EGIN GENERO INDARKERIA KASUETAN

- ☐ Etxetik gertuen duzun gizarte zerbitzuetako zentroan laguntza eskatu.
- ☐ Lesiorik izatekotan: Osasun etxera joan. **Txosten medikua epaitegira bidal daiteke, eta bertan hasiko da ofiziozko jarduera.**
- ☐ Sexu-eraso bat jasan baduzu: Joan osasun-etxera. Ez zaitez garbitu.
- ☐ Salatu gertaerak xehetasun guztiekin eta eskatu salaketaren kopia bat.
- ☐ Eskatu babesa eta urruntze-agindua epaitegian.
- ☐ Etxean geratzen bazara, hartu segurtasun-neurriak.
- ☐ Beste norbaiten etxera bazoaz ez eman helbidea eta ez zaitez fidatu adiskidetze-saiakerez.
- ☐ Etxera joan ezin baduzu: Harrera-etxeak edo larrialdi-zentroak.



## SALATU NAHI BADUZU, ZERA JAKIN BEHAR DUZU:

...Komisarian egin dezakezu (Ertzaintza edo Udaltzaingoa), emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegietan edo fiskalaren aurrean.

...Laguntza juridikoa eta interpreteak doan eskatzeko eskubidea daukazu.

...Indarkeria fisikoa, sexuala eta psikikoa salatu daiteke. Salaketa egitera zoazenean konfiantzazko norbaitekin joatea komeni da.

...Pentsatu ondo indarkeria aurrekaririk dagoen eta noiztik. Ez salatu soilik une horretako erasoa.

...Beste pertsona batzuk arriskuan badaude edota erasotzaileak armak baditu, esan egin behar duzu.

...Eskatu informazioa babes-aginduren inguruan eta behar duzula uste baduzu, eskatu.

...Gertakarien lekuko posibleei buruzko informazioa eman.

...Irakurri eta konprobatu salaketaren edukia sinatu aurretik eta eskatu kopia bat.

...Salaketak mekanismo judiziala aktibatzen du. Hurrengo 72 orduetan zuk eta erasotzaileak epailearen aurrean deklaratu beharko duzue, bakoitzak bere aldetik.

...Delitu arinak badira, erasotzaileak gertatutakoa onartzen badu eta fiskalak proposatutako zigorra onartzen badu, sententzia ematen da. Zigorra jasotzen duen lehen aldia bada, ez da kartzelara joango.

...Erasotzaileak gertatutakoa onartzen badu, kasua zigor-auzitegiaren bidez epaituko da gehienez ere hilabeteko epean, eta sententzia eman arte kalean egongo da.

...Erasotzailea egoera irregularrean badago eta sei urtetik beherako kartzela zigorra jasotzen badu, salbuespenak salbuespen, herrialdetik kanporatuko dute eta tarte batean ezin izango da itzuli; gutxienez sei urteko eta gehienez ere 10 urteko tartean.



## ETXETIK IRTEN BEHAR BADUZU, EZ AHAZTU

- ✓ Pasaporteak
- ✓ Egoitza-baimenaren ziurtagiria.
- ✓ Osasun-txartela eta medikuaren ziurtagiriak.
- ✓ Etxebizitzaren alokairu-kontratua.
- ✓ Bankuko dokumentuak eta kreditu-txartelak.
- ✓ Helbide-agenda.

### Eta gainera...

- Eskatu behin-behineko neurriak edo banaketa-agindua epailearen aurrean hilabeteko epea baino lehen, etxea uzteagatik salaketa bat saihesteko.
- Presaka irten behar izan baduzu eta beharrezko gauzak hartu ezin izan badituzu, polizia horien bila lagun zaitzake. Horretarako eskubidea duzu.
- Larrialdi egoerako baliabide batean ostatua hartuko baduzu, polizia zurekin joango da etxera zure gauzak hartzera eta ondorengo leku-aldatzea egitera.
- Saiatu dokumentazio eta diru guztia hartzen.



## AURKI DITZAKEGUN ARAZO OHIKOENAK

### SALAKETA JARTZEAN SERIO EZ HARTZEA

Gogoratu babesa emateko zaudela hor. Utzi berari azaltzen eta galderei erantzuten. Komisaria guztietan dago berdintasun arloko arduradun bat.

### HEZITZAILE BERBERAK TRATU TXARREN EMAILEAREKIN ETA JASO DITUENAREKIN LAN EGIN BEHARRA

Egitekoak banatzeko orduan egoera hori saihesteko neurriak har ditzakegu, tratu txarren emalearekin lan egiten duenak biktimarekin ere lan egin behar ez izateko.

### PROSTITUZIOAREN ANTZEKO ZERBAIT

Gai hori zentroan bertan landu dezakegu, gizon eta emakumeentzako jarduera-protokolo komun batekin.

### BIKTIMAK EZ ONARTZEA TRATU TXARRAK JASATEN ARI DELA

Pertsona horrekin boterea hartzearen ikuspuntutik lan egin behar da. Horrela lortuko dugu maitasun erromantikoan oinarritutako ideologiak desmuntatzea eta bikotekide izatearen eta norberaren ikuspegi berri bat eraikitzea, indarkeria saihestuz.

### ERABILTZAILE BATEN TRATU TXARRAK SALATU ETA BERE KONFIANTZA GALTZEA

Taldetan landu kasu bakoitza segurtasun handiago bat lortzeko gure ekintzetan eta adostutako erantzukisun profesionalak bereganatu.

### ETXERIK EZ DUTEN GIZON ETA EMAKUMEEKIN LAN EGITEKO LEKURIK EZ IZATEA. OSASUN MENTALEKO ARAZOAK DITUZTEN EMAKUMEENTZAKO GIZARTE BALIABIDE NAHIKORIK EZ EGOTEA. ETXERIK EZ DUTEN PERTSONEN KASUAN, HARREMANAREN DESOREKA.



## TELEFONO ZENBAKIAK ETA BALIABIDEAK

- ⊙ EMAKUNDE. Emakumeen Euskal Institutoa. Tlf. 945016701 [emakunde@ej-gv.es](mailto:emakunde@ej-gv.es)
- ⊙ Arreta eta Informazio Zerbitzua 24 ordu: SATEVI 900 840 111.
- ⊙ Biktimen Arreta SAV (arreta psikologikoa, informazioa eta laguntza Juridikoa)
  - ⊙ Bilbo 944.016.650 (9:00 – 14:00)
  - ⊙ Justizia Jauregia 944.001.000 (9:00- 14:00)
- ⊙ Foru Aldundiko Egoitzak: Gizarte Ekintza - Emakumea eta Familia. Ugasko bidea, 3 – 2. Bilbo. Tel.: 944. 066.900 / 944. 083.574
- ⊙ Urgentzia Soziala. Bilboko Udala. Tel.: 944. 701.460
- ⊙ Berdintasun Zerbitzua. Bilboko Udala. Ernesto Erkoreka Plaza Bilbao. Tel.: 944. 204.838

## ERASOTZAILEENTZAKO BALIABIDEAK



- ⊙ Gakoa. IRSEk kudeatutako zerbitzua. Tenderia 28, 1goa. BILBO. Tel. 94 479 23 16
- ⊙ Zutitu. Campo Volantin Pasealekua, 24, 4., Dpto. 6. departamentua, Bilbo. Tel. 944450760. [Info@zutitu.com](mailto:Info@zutitu.com)



## ERAKUNDE ETA ELKARTE INTERESGARRIAK

- ◉ **EMAKUNDE**. Emakumearen Euskal Erakundea. Tlf. 945.016.701 [emakunde@ej-gv.es](mailto:emakunde@ej-gv.es)
- ◉ **Abima**, Bilbo. Indarkeriaren Biktimei zuzenduta. Arreta Komunitarioa.
- ◉ **Acamu**, Bilbo. Sexuagatik diskriminatutako emakumeei arreta eta aholkularitza. Tlf. 605719192, 618345206 [acamu2@yahoo.es](mailto:acamu2@yahoo.es), [info@avaleme.org](mailto:info@avaleme.org)
- ◉ **Adostoki**, Bilbo. Genero indarkeriaren biktimeentzat arreta komunitarioa. Tlf. 945.890.505
- ◉ **Agintzari**. Bilbo. Gazte eta adintxikikoei zuzendutako programa hezitzaileak. Tlf. Tel. 944.757.005 [agintzari@agintzari.com](mailto:agintzari@agintzari.com)
- ◉ **Amikeco**, Bilbo. Genero Indarkeriaren erasotzaileei zuzendutako programak. Tlf. 656.798.435 [bilbao@amikeco.es](mailto:bilbao@amikeco.es)
- ◉ **Argitan**, Barakaldo. Arazoak dituzten emakumeen arreta psikologikoa, juridikoa eta lan orientazioa. Tlf. 944.782.102
- ◉ **Ascovige**, Portugalete. Genero indarkeriaren biktimei orientazioa. Tlf. 610.267.615
- ◉ **Askabide**, Bilbo. Prostituzioaren esparrua lantzen dute. Tlf. 944.164.828 [asociacionaskabide@gmail.com](mailto:asociacionaskabide@gmail.com)
- ◉ **Auzolan**, Bilbo. Populazio osoa. Aholkularitza, famili-plangintza... Tlf. 944.163.622 [info@moduloauzolan.org](mailto:info@moduloauzolan.org)
- ◉ **Avicontedo**, Bilbo. Genero indarkeriaren biktimeentzat arreta komunitarioa. Tlf. 637.707.491 [avicontedo@yahoo.es](mailto:avicontedo@yahoo.es)





## ERAKUNDE ETA ELKARTE INTERESGARRIAK

- ◉ **Aluen Poza**, Bilbo. Aisialdia. Tlf. 944.167.492
- ◉ **Bizi Berriro**, Barakaldo. Genero indarkeriaren biktimeentzat arreta komunitarioa.
- ◉ **Caridad Luisa de Marillac**, Bilbo. Genero indarkeriaren biktimeentzat arreta komunitarioa. Tlf. 944.477.162 [imarillacarangoit@hotmail.com](mailto:imarillacarangoit@hotmail.com)
- ◉ **Clara Campoamor**, Bilbo. Genero Berdintasunagaitik desabantaian dauden pertsonen zuzendutako programak. Tlf. 944.239.155 [recepcion@cdmclaracampoamor.com](mailto:recepcion@cdmclaracampoamor.com)
- ◉ **Eraso sexisten kontrako Batzordea**. Bilbo. Genero indarkeriaren biktimeentzat arreta komunitarioa eta aholkularitza Tlf. 944.155.483
- ◉ **Posada de los abrazos**, Bilbo. Bazteketa sozialean dauden pertsonen zuzendutako programak. Tlf. 944.153.948/615.759.153 [posadadelosabrazos@gmail.com](mailto:posadadelosabrazos@gmail.com)
- ◉ **Sin Romi**, Bilbo. Emakume ijitoen zuzendutako programak. 661.283.746 [sim.romi@yahoo.es](mailto:sim.romi@yahoo.es)
- ◉ **Supergintza** Bilbo. Genero Indarkeria pairatu duten emakumeen zuzendutako programak. Tlf. 944. 008. 060 [suspergintza@suspergintza.net](mailto:suspergintza@suspergintza.net)
- ◉ **Tribuna Permanente de crímenes contra la Mujer** Bilbo. Genero indarkeriaren biktimeentzat arreta komunitarioa. Tlf. 944.447.693
- ◉ **Zutitu**. Bilbo. Genero eta etxeko indarkeria arloko arreta psikologikoa. Tlf. 944.450.760 [info@zutitu.com](mailto:info@zutitu.com)
- ◉ **FEKOOR**. Ezintasun fisikoa eta organikoa duten pertsonen inklusioa. Tlf. 944.053.666 [fekoor@fekoor.com](mailto:fekoor@fekoor.com)
- ◉ **AVIFES**. Gaixotasun Mentala duten pertsonen familien elkarteak. 944.456.256 • 944.329.120 [info@avifes.org](mailto:info@avifes.org)
- ◉ **ONCE**. Bilbo. Ezintasun sentzoriala duten pertsonen inklusioa. Tlf. 944.702.044 [fundaciononce@fundaciononce.es](mailto:fundaciononce@fundaciononce.es)
- ◉ **PIPER TXURIAK**. Bilbo. Berdintasunaren aldeko gizonen taldea. [ghi.bizkaia@gmail.com](mailto:ghi.bizkaia@gmail.com)